


Gernikako Azoka

Urriko azken astelehena



MIKEL MARTINEZ

Baserritarrek goi-mailako produktuak izan zituzten salgai atzo Gernikan, eta erosleek oso ondo erantzun zuten.

Salmentarik onenak, goizean goiz

Urriko azken asteleheneko sariketaz gain, baserritarren asteroko azoka egin zen Merkatu Plazan

Joseba Arruti / Gernika-Lumo

◀ BASERRITARRAK izaten dira urriko azken asteleheneko protagonistak, eta atzo gustura zeuden egindako salmentekin. Audioko baserritar batek adierazi zigunez, «ondo saldu dugu, batez ere goizeko lehen orduetan. Gero jende asko pilatu da, eta beste ezer baino gehiago generoa begiratu baizik ez dute egin». Gernika-Lumon ohikoa

denez, produktuak maila gorenekoak izan ziren atzo ere. Fruituen artean, sagar eta madari dozena 200 pezetan egon ziren salgai, eta kiwia ehun ogerleko garestiago kotizatu zen. Bestelako produktuei dagokienaz, txakolin botila 500ean eskaini zen, intxaurrak 450ean, hurrak 400ean, Gernikako indaba 1.000 pezetan eta patata kiloa 60/75 pezeta bitartean. Horiez gain, poteko

pipermina 600ean saldu zen, piper berde dozena 75ean, erretzekoa 350ean, piper txorizeroaren zientoa 4.000n eta tipula gorri dozena ederra 800ean.

Asteleheneroko azoka

Urriko azken asteleheneko sariketaz gain, asteroko azoka egin zen Merkatu Plazan. Urriko azken asteleheneko sariketaz gain, asteroko azoka egin zen Merkatu Plazan. Urriko azken asteleheneko sariketaz gain, asteroko azoka egin zen Merkatu Plazan.

mentak bikainak izan ziren, urtero, urri guztietan gertatzen den legez. Neguko astelehen hotzetako nekeen ondoren, urriko astelehenetan salmentek dezente egiten dute gora, eta atzo ere oso zaila zen bertara hurbildu eta ezer erostea, zegoen jendetza jendetza. Baserritar horiek ez zuten sariketan parte hartu, baina urte osoko genero bikain bera ekarri zuten.

Erroskilla saltzailea hil zen, bihotzekoak jota

Urriko azken asteleheneko azoka ezbehar batekin hasi zen. Izan ere, goizeko bederatziak inguruan M. F. I. erroskilla saltzailea hil egin zen, bihotzekoak jota, Adolfo Uriosten zeukan postuan bertan. Hildakoaren gorpua bertan geratu zen, ordubete geroago inguru epaileak berori altxatzeko agindua eman zuten arte.

Ekueadorren bahitutakoak, gustura

Irailaren hasieran Ekueadorren bahitutakoak, Jesus Mari Magunagoikotxeak, Maria Jesus Mimenza haren emazteak eta Ander Mimenza azken horren nebak, lehenaren herriko jaiegun nagusietakoan parte hartu zuten. Aitortu zutenez, «oso gustura» ibili ziren txosnaz txosna azken asteleheneko giroaz gozatzeko.

Nahi beste talo, txorizo eta txakolin

Herrian zehar jarritako postuak ikuskatzen diren bitartean, ohikoa izaten da hirigune osoan zehar jarritako txosnetan galditxoak egitea. Gernika-Lumoko kultur eta kirol taldeek aukera ezin hobea izaten dute euren aurrekontuen lagungarri den dirutza jasotzeko, eta trukean bertaratutako guztiek gura izaten dituzten taloak eta txorizoa ahalik eta goxoen prestatzen saiatzen dira. Hori irensteko, jakina, eztarria freskatuko duen zerbait ere ezin bestekoa ohi da, eta atzo txakolina eta sagardoa izan ziren jaun eta jabe.

Karteristak geratu barik ibili ziren goizean

Azokan biltzen den jendetza izan ohi dituen arrisku nagusietako bat karteristena da. Urtero, urriko azken astelehena aukeratzeko dute negozio biribila egiteko, eta hainbat kartera hustuta agertzen da hirigunean botata edo zenbait etxetako buzoietan sartuta. Udaltzaingoa esanetan, «urtero kontu handiz ibiltzeko eskatu arren, aurtengo ere asko izan dira lapurretak jasan dituztenak».

S L RIU

ch En r - T L 25 3 3 LU IV EGI - GE NIK

knaga - LABAKOA -

25

25 33 1 / 2 5

25 23 3 / 5 22

n T L ,

GE NIK

ZIMEL J t tx

✓ E un k m nu

✓ K rt

✓ Ezk ntz k t st l k

s k zun n k

25 m h k r ntz t

K r l s G n t, 57 • T L 25 1 12 • GE NIK

N k z r t t s r

z k n h t u n l z

ur h r r k z n u n

h u t u r u r r t z

EUSK L ES KEUSK L ME I

s n u n h t z

s ntz z k

z u z n t s u n z z n l z

H N

UMEEN

INET K K

n u l t u r r n

s n J u n k / 1 • T L 25 31 1 • 3 GE NIK (z k)

G If GTI.15 Z .

t ntz . 15 Z . GTI.

H t z h r k s k k

k z k t , n s

u r x k s n t u t u z t .

Z t z z u r

k n t z s n r r z u r

s n t s z h z t

Z l t z r .

Z n t u z u T.M. GE NIK -n.

G m k r r , 3 . / T L 25 2 . F x 25215 - GE NIK